

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko diru-laguntza deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2021-2022 ikasturtea

1. Deialdiaren eremua

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ingurumen hezkuntzako programaren xede nagusia ingurumena da, hainbat alorrekin lotutako proposamenak eskainita: bizi garen ingurunea; ingurune horretan bizitzeari edo/eta edo garatzeari eragiten dioten kanpoko baldintzak; flora, fauna, gizakiak, eta horien arteko harremanak; ingurumenaren kudeaketa eta iraunkortasuna.

Gasteizko mugikortasun iraunkorraren eta espazio publikoaren planaren barruan, eta Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ingurumen hezkuntza, informazio eta prestakuntzaren alorretan antolatzen dituen jardueren artean kokatzen da eskola-mugikortasun aktibo, autonomo eta iraunkorreko ekimenak sustatzea.

2. Deialdiaren xedea

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen familia-elkarteei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, hain zuzen ere 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko.

3. Norentzat

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo ikastetxeen ikasleen familia-elkarreok eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki.
- 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia bultzatzeko proiektu bat garatzen aritea edo garatzeko asmoa izatea.
- 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean ikasturtean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, mugikortasun aktibo eta autonomoaren sustapenari estu-estu lotuak. Honako hauek joko dira proiektuarekin zerikusia duten gastutzat:
 - Ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomoaren sustapenari buruzko ikastaro, hitzaldi eta lantegien antolakuntza.
 - Oinezko edo bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzearekin zerikusi zuzena duten obra edo lanak egitea. Adibidez, bizikletentzako aparkaleku seguruak sortu edo handitzea.
 - Ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzearekin zerikusi zuzena duten komunikazio-kanpainak egitea.
 - Diru-laguntza eskatzen duen erakundea titularra den lantokian lan egiten duten langileei lagatzeko bizikletak erostea.

– Eskolabide seguruak egiteko proiektuak garatzea: “pedibusak”, “bizibusak”, eskolabideak seinaleztatzea eta abar.

– IGlko teknikarien iritziz antzeko izaera duten beste batzuk.

– Ikastetxeek beharrezko argibideak eman beharko dituzte, egokitzen jotzen bada, IGlko teknikariek egiaztatzerik izan dezaten aurkeztutako fakturak eta diruz lagundutako proiektuen garapena bat datozela.

– Ikastetxe bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal du, dela ikastetxearen izenean, dela bertako ikasleen familien izenean.

4. Aurrekontu zuzkidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak, gehienez, deialdirako 10.000,00 euroko kreditua erabili du 2021-2022 ikasturterako Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuaren 2022ko 0110.1722.471.06 partidaren kontura, kreditu egokia eta nahikoa egotea xede horretarako gaituta dagoen udal aurrekontu horretan.

Diru-laguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuko da, eta inola ere ezingo da gainditu elkarte bakoitzak jasandako gastu erreala-
ren ehuneko 100.

Ingurumen Gaietarako Ikastegiak ikastetxe edo familia-elkarte bakoitzari gehienez 3.000 euro emango dizkio, BEZa barne, ikastetxe edo guraso-elkarte bakoitzeko.

Hauxe izango da banaketa-sistema:

Deialdiko kredituaren ehuneko 50 onartutako ikastetxeek aurreikusitako gastuaren arabera proportzionalki banatuko da.

Atal honetan emango den diru-laguntza honela zehaztuko da:

– Ikastetxeren batzuek 3.000,00 euroko diru-laguntza gainditzen badute, eman daitekeen gehieneko diru-laguntza jasoko dute, hau da, 3.000,00 euro.

– Horrelako ikastetxerik bada, horiek kontuan hartuta eta, halaber, dagokien diru-laguntza-
ren zenbatekoa ere kontuan hartuta, berriro aplikatuko da irizpidea funtsaren gainerako zatia-
rekin, lehen kalkuluan eman zekiekeen zenbateko maximora iritsi ez diren ikastetxeen artean,
eta horrela jarraituko da, behar beste aldiz.

– Gainerako kreditua, ehuneko 50, onartutako eskabideen artean banatuko da proportzio-
nalki, ondorengo atal hauetako bakoitzean ikastetxe bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren
arabera:

– Dagokion ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopuruaren arabeko puntuazioa. Horrela,
2020-2021 ikasturtean zenbat haur izan diren matrikulatuta, horrenbeste puntu esleituko zaizkio
horietako bakoitzari.

– Bekadunen kopurua bider 3 egin ondoren ateratzen den puntuazioa, betiere, Arabako
Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak 2020-2021 ikasturteaz emandako datuen arabera. Eusko
Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxe publikoen kasuan, aurreko punta-
zioa bider 2 egingo da berriro.

Bekadun ikasletzat joko dira 2020-2021 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko
beka jaso duten ikasleak, 2020ko irailaren 30eko Aginduak, Hezkuntzako sailburuarenak, xe-
datutakoaren arabera.

– Ikastetxeak “Hamaika Esku” esku-hartze planean parte hartzen badu, aurreko puntuazioa
bider 2 egingo da berriro ere.

5. Eskabidea egiteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2022ko uztailaren 8a arte.

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: 2021garren urterako Gasteizko Udalaren diru-laguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorren arabera (eskuragarri daude Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org herritarrei laguntzeko bulegoetan eta 148 zenbakiko ALHAOn, 2020ko abenduaren 30koan).

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Eskaera ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztuko du, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2021erako diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorren ereduaren arabera (148 zenbakiko ALHAOn 2020ko abenduaren 30ekoan) eta www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones webgunean egongo da eskuragarri.

– Deialdirako eskaera berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetan aurkeztu ez izana egiaztatzen duen erantzukizun adierazpena (oinarri espezifiko hauei erantsitako lehenengo eranskina).

– Ikastetxea Vitoria-Gasteizko udal-mugartetik kanpo badago, baina ikasleen ehuneko 60 baino gehiago bertan errolatuta badago, ikastetxeko zuzendaritzak ikasle horien ehunekoari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztuko du (oinarri espezifiko hauei erantsitako bigarren eranskina).

– Ikastetxean gauzatzen ari den edo gauzatuko den proiektua, ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia bultzatzeko. Proiektuaren helburuak, metodologia eta jarduerak azaldu beharko dira bertan, baita eskatzen den diru-laguntzarekin zer beharri erantzungo zaien ere.

– Diru-laguntza lehenbiziz Ingurugiro Gaietarako Ikastegian eskatu bada edo bankuko datuak aldatu badira:

– Bankuko kontu-zenbakia: banketxeak egindako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan jasota egon beharko dira kontu-zenbakia eta titularrak, kontuan hartuta titulartasuna ikastetxeak izan behar duela, ez, berriz, pertsona fisiko batek.

– Zerga-identifikazioko txartelaren fotokopia.

– 1-J eranskina. Eranskin hau beteko da, baldin eta proiektua edo jarduera zenbait entitate publiko edo pribatuk finantzatzen badute, eta/edo entitate onuradunaren funts propioekin.

– Justifikatzeko sistema: Pertsona edo entitate onuradunek justifikatzeko kontua aurkeztu beharko dute jasotako dirulaguntza justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz, dirulaguntzen ildo bakoitzaren berariazko oinarrietan justifikatzeko beste sistemarik ezarri ezean. Dokumentazioa aurkezterakoan oinarri hauetan agiriak normalizatzeko emandako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

– Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

– Jardueren kostua justifikatzeko txosten ekonomikoa. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:

– 2-J eranskina. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda: Eranskin hau beteko da udal dirulaguntzari egozten zaizkien gastuak justifikatzeko, gastu-motak zedarritu behar direlarik hartzekoduna, kontzeptua, data ea zenbatekoa adierazita, eranskinean jasotzen denaren arabera. Eranskinari jatorrizko fakturak eta fakturen ordainagiriak atxikiko zaizkio. Dirulaguntzari egozten zaizkion langile-gastuetarako, nominak eta TCak (egungo RNT eta RCL) erantsiko dira. Eskudirutan ordaintzeko, aintzat hartu beharko da legez ezarritako mugapena, zein web-orri honetan kontsultatu daitekeen: www.agenciatributaria.es.

– 3-J eranskina. Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

– 5-J eranskina. Erantzukizunpeko aitopena: Entitate onuradunak adierazpen hauek biltzen dituen eranskina beteko du:

– Aurkezten diren faktura, fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortuak direla, eta Gasteizko Udalaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.

– Entitate onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbaterako eta jatorria zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

– ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzei buruzko sortutako gastuen fakturen kopiak aurkeztu beharko dira, jatorrizko fakturekin batera (ondoren, konpultsatuta egingo dira).

Diru-laguntzen eskaerak egiteko baldintza guztiak betetzen ez badira edo eskatutako dokumentazioa erantsen ez bada, oinarri orokor hauetan adierazitakoa hartuko da kontuan.

6. Balorazio-irizpideak

Jasotako eskabideak aurkezten diren fakturen arabera hartuko dira kontuan, eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-jardueretara joateko kontzeptua izango dute oinarrian.

7. Aurkeztutako agirietako akatsak zuzentzea

Eskabideak oinarri hauetan xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio erakunde edo pertsona interesatuari, 10 eguneko epean hutsak zuzen dituzan (epe hori ezin izango da inolaz ere luzatu). Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko, 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

8. Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzen emakida prorata gisa gauzatu da.

Diru-laguntzak jaso ondoren, baldintzak egiaztatu ondoren, eta eskabideak izapidetzeko onartu ondoren, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena igorriko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Hala, kide anitzeko eskumeneko organoa eratuko da eskaerak eta emakida-proposamena aintzat hartzeko. Organo horretan, honako hauek egongo dira: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria, ikastegiaren ingurumen sentzibilizaziorako sailaren burua eta ikastegiaren ingurumen sentzibilizaziorako sailaren teknikari bat.

Era berean, organo izapidegilea Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko administrazio-kudeaketaren burua izango da, eta datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz. Datu horien arabera egingo da diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakariari eskuordetu zaio deialdi honetan araututako dirulaguntzak ebazteko eskumena.

9. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea

2021erako diru-laguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera (eskuragarri daude Udalaren webgunean –www.vitoria-gasteiz.org–, herritarrei laguntzeko bulegoetan, eta 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn 148 zenbakian).

10. Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ordainketa bakarrean ordainduko du zenbaterako. Horretarako, gehienez ere bi hilabeteko epea izango du dagokion ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Diru-laguntzetarako aurkeztu diren facturen bitartez egingo da justifikazioa. Eranskinak eta bestelako dokumentazioa ere erabiliko dira justifikazioa egiteko.

11. Itzulketa

Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzen hogeigarren artikuluan zehaztutako egoeraren bat egokituz gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta, era berean, dirulaguntzaren ordainketa-egunetik aurrera sortutako berandutze-interesak ordaindu beharko dira.

Itzultzeko jardunbidea dirulaguntzei buruzko udal-ordenantza horretan xedatutakoa izango da, onuradunaren jokabideari lotutako arau-hausteak eta zehapenak gorabehera.

Jasotako kopuruak eta berandutze-interesak itzultzea bidezkoa bada, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ES22 2095 0611 06 1090953091 kontuan egingo da. Horretarako, Ingurugiro Gaietarako Ikastegian diru-sarreraren ordainagiria aurkeztuko da.

12. Laguntzen bateragarritasuna

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugaraino.

13. Onuradunen betebeharrak

– Gasteizko Udalaren Kontuhartzaitetza Nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantzak fiskalizatzeko lanak onartu eta laguntzea.

– Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.

– Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari horren berri ematea, nahiz zerbitzu horrek eskatzen duen edozein informazio ematea.

– Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzako betebeharrak betetzea.

14. Arau-hausteak eta isunak

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

15. Aplikagarri den legedia

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 5ean

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA



I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA

IKASTETXERA JOATEKO MUGIKORTASUN AKTIBO ETA AUTONOMOA SUSTATZEA HELBURU DUTEN EKINTZAK GAUZATZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2021-2022 IKASTURTEA

_____jaunak/andreak_____

_____NAN zk. duenak, _____

ikastetxeko zuzendari gisa,

_____ - _____ IFK/IFZ eta

_____ helbidea izanik

ADIERAZTEN DU

Erantzukizun gisa, eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdi honetarako, ordezkatzeko duzun ikastetxeak ez duela diru-laguntzarik eskatu beste sail edo zerbitzu batean.

Jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditz an,

Vitoria-Gasteizen, 2021ekoren(e)(a)n

Izen-abizenak
(Jatorrizko sinadura eta zigilua)



II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA

IKASTETXERA JOATEKO MUGIKORTASUN AKTIBO ETA AUTONOMOA SUSTATZEA HELBURU DUTEN EKINTZAK GAUZATZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2021-2022 IKASTURTEA

_____ jaunak/andreak
_____ NAN zk. duenak,
_____ ikastetxeko zuzendari gisa,
_____ IFK/IFZ eta
_____ helbidea izanik

ADIERAZTEN DU

Erantzukizun gisa, eta eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdi honetarako, ordezkatzeko duzun ikastetxeko ikasleen % 60 gutxienez Vitoria-Gasteiz udalerrian erroldatuta dagoela.

Jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Vitoria-Gasteizen, 2021ekoaren(e)(a)n

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)